

GIL 124 Urrutxuako K-T muga



K-T muga Urrutxuan, Bizkaiko begiratokitik gertu.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 14' 47,71" N
Long.: 2° 37' 15,72" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 530.767,00 m
Y: 4.788.355,00 m



Nola iritsi

Jarraitu Gernika-Bilbao BI-635 errepideari. Zugastietan, hartu BI-3231 errepidea Urrutxuarantz. Iritsitakoan, jarraitu beste 3 km-an. Azaleratzea errepide horren ertzean dago, Bizkaiko begiratokitik 750 m-ra.



K-T mugaren xehetasuna.



Buztin-geruzaren xehetasuna.

GILaren deskribapen laburra

Eusko-Kantauriar arroan, badira sekzio jarraitu batzuk, azaleratze onekoak, Kretazeo/Paleogeno muga —literatura geologikoan K-T muga deitua— jasotzen dutenak; batzuk oso ezagunak dira, eta beste batzuk ez hainbeste, baina guztiak ere interesgarriak dira, zalantzarik gabe, Lurraren historiako une horretan gertatu zen krisi biologikoa ikertzeko.

Urrutxuako Kretazeo/Paleogeno muga (K-T muga) tuparri eta kareharri tupatsuen itsas sedimentazioko sekuentzia sakon batean kokatuta dago. Muga horrek itsasoko faunaren suntsipen handi bat markatzen du, eta haren bereizgarriak dira, halaber, konposizioaren zenbait anomalia, Yucatán penintsulan eroritako meteorito baten talkarekin erlazionatuak.

Muga 5 cm lodi da, eta, sekziorik ezagunena ez bada ere, badu ezaugarri berezi bat: munduan iridio-kontzentrazio handiena duten tokietako bat da (APELLANIZ, 1998).

Paleontologiaren ikuspegitik, K-T mugak ammoniteen suntsipen osoa adierazten du, baita kantitatearen eta dibertsitatearen urritze nabarmena ere planktoneko foraminifero-espezieetan (biomasaren % 93 eta dibertsitatearen % 70) eta kare-nanoplanktonean (biomasaren % 80 eta dibertsitatearen % 60).

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 15, GIL 42, GIL 62.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 43, GIL 44.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	K-T mugaren azaleratzeetan, munduko erregistroan iridio-edukirik handienekoa da.				

Bibliografia espezifikoa

- Apellaniz, E. (1998). *Los foraminíferos planctónicos en el tránsito Cretácico-Terciario: análisis de cuatro secciones en depósitos de cuenca profunda de la Región Vasco-Cantábrica*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 390 or.
- Baceta, J. I. (1996). *El Maastrichtiense superior, Paleoceno e Ilerdiense inferior de la Región Vasco-Cantábrica: secuencias deposicionales, facies y evolución paleogeográfica*. Doktore-tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 372 or. (argitaratugabea).
- Bohor, B.K. (1990). "Shocked quartz and more: impact signatures in Cretaceous/Tertiary boundary clays". In: Sharpton V.L. & Ward, P.D. (editoreak), *Global Catastrophes in Earth History: An interdisciplinary Conference on impacts, volcanism, and mass mortality*. Geological Society of America Special Paper 247, 335-342.